

B

BARREN



“Minbiziaz operatu eta hurrengo egunean bidali ninduten kartzelara”

Mikel Ibañez, preso

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

KOLTXOI-DENDA TEXTIL HOGAR - LAGUNAK

DOMINO EFEKTUKO koltxoi serie berria, transpirazio handiena duen koltxoia

Aukeratu zure koltxoia:

- Biskoelastikoa
- Latexa
- HR

**TEXTIL HOGAR,
ETXEKOA,
KONFIANTZAZKOA.**


**Martxoaren
15etik aurrera,
zatoz koltxoi berriaren
aurkezpenera
eta prezio berezi
bat egingo dizugu.**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR

24 hilabetetan ordalindu dezakezu interesik gabe

www.textillagunak.com



Uso mutilatuak

Hainbat aldiz galdetu diot nire buruari ea usoek nola galtzen dituzten hankak. Zergatik dauden hirietan, bi beharrea, oin bakarra duten horrenbeste uso. Saiatu naiz galderari erantzuna bilatzen, eta askotariko ondorioak iritsi dira niregana: gupidarik gabeko umeek jaurtitako txikleak, irensten dituzten zaborretako birusak eta onddoak... Ez daukat ondorio garbirik, ordea. Hankarik gabeko usoak eta usorik gabeko hankak, banatuta, eta berriz elkartuko diren esperantza handirik gabe.

Zertarako balio dute hankek? Ihes egiteko eta ostikadak emateko balio dute, funtsean. Gainerako funtzioak bigarren mailakotzat har daitezke. Milioika urteko eboluzioak erakutsi digun ebidentzia krudela, inondik ere.

Hanka asko dabil solte garaiotan Euskal Herrian, usoa non laga duen ez dakien hanka gehiegi. Ez naiz zuek uste duzuen horiez ari, ez; horiez, besteez, guztiez ari naiz. Hankek ihes egitea eta ostikadak ematea ahalbidetzen digutelako. Pentsatzen ez, ordea.

Uso mutilatuen hanka horiek berreskuratu, eta uso bakoitzari bereak itzultzen saiatzeko eskaera luza nahiko nizueke, guztion artean, esfortzu txiki bat eginda, baina ez dakit merezi ote duen. Ziur, orain arte bezala, beti bezala, hankek alde batetik eta usoek bestetik jarraituko dutela. Iheska eta ostikoka.

Lerro hauek hauteskunderen aurretik idatzita daude, hauteskunderen ostean ezer aldatuko ez den ziurtasun sendoarekin. Hanka bakoitzak hanken bila jarraituko du, eta uso bakoitzak usoen bila. Badakit usoak eta hankak ez direla elkartuko, egoskorregiak, harroegiak, handiusteegiak baikara besteen hankak gure gorputzekin elkartu eta aurrera egiteko. Tristeza bada ere, ez dago usorik gabe pentsatzen dakien hankarik, ez dagoen moduan bururik gabe hitz egiten dakien ahorik.

Antton Alberdi



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Lerro hauek hauteskunderen aurretik idatzita daude, hauteskunderen ostean ezer aldatuko ez den ziurtasun sendoarekin”

**EÑAUT IZAGIRREREN BLOGA
ESTREINATU DUGU!**

**GASTEIZTIK
MENDIMINEZ**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

 **ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA**

**“Garzonek berak
esan zuen
nire kasuan
kalean egoteko
baldintzak
betetzen zirela”**



Auzitegi Nazionalak orain arte ez du onartu Mikel Ibañez preso elgoibartarra aske lagatzea. Izan ere, minbizia dauka, eta oraindik epaiketaren zain dago. Epailleak espetxealdi arindua ezarri badio ere, abokatuaren arabera, legez aske egon beharko luke. Hortaz, senideen etxean betetzen ari da kartzela, eta bakarrik medikuarenera joateko irten daiteke. Etxerat elkarteak salatu du guztira hamalau presok aske egon beharko luketela, gaixotasun larri eta sendaezinak dauzkatelako. Gasteizko parlamentuak eta medikuntza alorreko berrehun profesionalak horiek guztiak aske lagatzeko eskatu berri dute. Espetxe politika bere osasun egoerarentzat erabat kaltegarria izan dela uste du Ibañezek.

Minbiziak gain, psoriasis eta diabetesa ere daukazazu. Zein tratamendurekin diharduzu?

Psoriasiari aurre egiteko, krema batzuk baino ez ditut hartzen orain, pastillak ez datozelako bat minbiziaren kontrako tratamendurekin. Kremekin segitu behar dut, injektziorik-eta ez dagoelako: horrekin behintzat hazkura eta legenik ez daukat. Diabetesa, berriz, orain dela hogeitau urte hasi zitzaidan lehenengoz, baina hasieran baxua zen. Orain, internatzen nauten bakoitzean igo egiten da, sartzen dizkidaten sueroek glukosa asko dutelako, azukre asko. Bestela, eguneroko bizitzan diabetesak ez du garrantzirik. Bestalde, minbiziari aurre egiteko, guztira hamabost kimio tratamendu hartu behar izan ditut. Zorionez, ondo konpondu naiz. Medikuek abisatzen dute gogorra dela, gorputzaldi txarra izan dezakezula, baina ondo konpondu naiz.

Orain dela gutxi, baina, hezur-muin transplantatea egin dizute, zelula amekin...

Urtarrilaren 13an ingresatu ninduten eta 18ra bitartean hiru txandatan egin zidaten. Ondo joan zen. Kimioarekin bezala, medikuek azaltzen zidaten gorputzak zelan erantzungo zuen. Nahiko ondo erantzun nuen. Baina laugarren egunean gibel-gaixotasuna izan nuen, eta txarto pasatu nuen. Birusa han hartu nuen, bainugelak, eta hamar egun egon nintzen txarto, erabat izorratuta. Medikuek arduratuta zeuden. Aurrera egitea lortu nuen. Hori izan da es-tuasun larri bakarra. Gainerakoa, pazientzia kontua da, eustea eta burua argi izatea. Gero minbiziari buruz hitz egiten entzuten

duzu: sinestezina da gaixorik zenbat eta zenbat gauden!

“Operatu ondoren, kartzelako enfermerian beste bost lagunekin sartu ninduten. Denak porroak erretzen”

Espetxean aurkitu zituzten minbiziak?

Parisetik kanporatu eta kartzelan sartu ninduten. Espetxeko medikuek errebisioa egin du sartzean. “Zuk, Ibañez, zer duzu?”, galdetu zidaten. “Pastilla batzuk diabetesaren aurka, eta horiekin ondo nabil”, esan nion. “Hala ere, izterondoan koskor txikia dut”. Medikuek ikutu egin zuen, eta mugitzen zela ohartu zen. “Hori sebo txikiren bat izango da. Laga egingo dugu, eta aurrerago kendu, operatu”. Denborarekin, hazi egin zen, eta ondoezik jarri nintzen. Jateari eta edateari laga nion. Ezin ibili, ezin mugitu, aktibitatearik gabe, kideekin egoteko gogo barik: etzanda egon nahi nuen, ohean, bakarrik, lasai. Goiz batean, errekuentoa egitean, ezin ninduten esnatu. Gregorio Marañoñ ospitalean ingresatu ninduten, presoentzako gunean.

Eta han operatu zintuzten?

Esnatu ondoren, medikuek esan zidan azukrea jaitsi egin zitzaidalda eta lau egun egin

nituela koman. Bitartean, errebisioa egin eta minbiziak topatu zituzten; ez zen sebo txiki bat. Minbiziak zabaltzen hasia nuen. Itxura denez, giltzurrunak pasatu eta nerbio organuetara heltzeko zorian zegoen. Hil eta erdiren buruan begetal hutsa izan nintzelela argitu zidan, eta horregatik operatu nindutela. Medikuek hori esan ondoren, funtzionario bat etorri zitzaidan: “Jantzi, Soto del Realera goaz-eta”. Minbiziak operatu eta hurrengo egunean bidali ninduten kartzelara! Pasoko ospitalea zen, ez ingresatuta egotekoa. Gero, Sotoko medikuek enfermeriara bidali ninduen, baina hori *putetxea* hori! Beste bost lagunekin nengoan gelan. Denak porroak erretzen egoten ziren, eta nik gutxieneko neurri higienikoak behar nituen! Kristoren neurrigabekeria. Operatu eta beste bostekin gela batean sartu ere! Ezin duzu pentsatu zer den hori. Denbora aurrera joan ahala, txartoago nengoan. Pentsa, arreba eta koinatua Madrileraino bisitan joan, eta ezin nintzen bost minutu baino gehiago eurekin egon: etxera bueltan bidaltzen nituen! Ezin nuen. Berrogeitaz egun egin nituen jan gabe: ezin nuen.

Baina ospitalera berriz itzuli zinen, ezta?

Goizalde batean, ospitalera joango nintzela esan zidaten. Han hasi nintzen kimioekin eta pastillekin, besterik ez. Gauza asko ez ditut gogoratu ere egiten. Gero, Donostiara ekarri ninduten, abokatuek-eta lan egin ondoren. 47 kilorekin ekarri ninduten. Beti 72-73 izan ditut; Madrilen 36 bat izan nituen. Donostian dena aldatu zen, nire bizitza aldatu zen: medikuen tratua, enfermerena...



Etteratek Mikel Ibañezen egoera kritikatu du behin baino gehiagotan. Gaixotasun larriak dituzten presoekin legea bete eta aske lagatzeko exigitu du, gainera. Elkartearen arabera, estatuaren jarrera ankerra da presoekin eta, batez ere, gaixorik dauden espetxerarekin. Osasun eskubidea urratzen zaiela salatu du. Guztira, hamalau euskal preso dute gaixotasunen bat, baina Ibañezen kasua berezia da, oraindik epairen zain dagoelako.

Preso gaixoak askatzeko eskaera bere egin zuen Gasteizko parlamentuak abenduan. Urtarrilean, berriz, Ibañezen eta gainerako preso gaixoen osasun egoerarekin kezkatuta, osasun arloko berrehun profesional inguruk exigitu zuen aske lagatzeko. Administrazioari eta justizia arloari eskatu zioten preso gaixoentzako osasun asistentzia “egokia eta duina, oztoporik eta murrizpenik gabekoa”.

Elgoibarren, bestalde, Mikel Ibañezen lagunak taldea sortu da eta hainbat protesta ekitaldi egin izan dituzte.

Gero espetxealdi arindua jarri zizun epaileak, hau da, etxean bete behar duzu espetxealdia. Horrek zelan baldintzatzen du gaixotasunari aurre egin beharra?

Medikuen arabera, ondo etorriko litzaidake egunean ordubete edo ordu t'erdi paseatzea. Hemen, etxean, egunero da berdina: bisitak eta baditut, baina bueltatxo bat ematea ondo etorriko litzaidake.

Orain hilabetera arte polizia egon dira etxea zaitzen. Gorabeherarik izan da?

Egunero-egunero 24 polizia egoten ziren etxe inguruan. Erasoak egin zituzten. Kalea eurentzako hartu eta inori ez zioten aparkatzen lagatzen. Erosketetatik zetozen etxeko andreei katxeatzeko mehatxua egin zieten. Argazkiak atera zituzten etxe aurrean *txarras-kekin* eta Interneten eskegi. Edaten harrapatu zituzten, eta txiza egiten... Bronkak egon ziren... Ikastola gertu dago eta umeak ikaratuta ibili ziren... Prepotentzia ere erakutsi dute: goizeko seietan ohean nengoen ala ez galdetuz ere etorri izan ziren.

Zure familiak zelan bizi du prozesua?

Parisen jausi eta gero gaixotzean, arazo gabe onartu dute ni etxean egotea. Beti egon dira hor. Ondo. Senideen kontua garrantzitsua da presoontzat. Presoa familiarik gabe ez da ezer. Asteko deia-zen zain dago presoa, neska-lagunaren paketearen zain. Ez hori bakarrik, laguntza batzordeen edo gestoren laguntzarik gabe oso oso zaila izango litzateke.

Oraindik epaitu gabe dagoen presoa izan arren, gaixotasuna dela-eta Auzitegi Nazionalak ez du zu askatzeko baimenik eman. Zure abokatuek zer bide jorratu dituzte?

Orain Jone Goirzelaiak darama auzia. Gaixotasuna topatu zidatenetik lau aldiz eskatu dugu aske lagatzeko. Erantzuna hirutan ezezkoa izan da, eta laugarrenaren esperoan gaude. Kontuan hartu ni oraindik epaitu gabe nagoela, eta hori aringarria dela. Nik gai hori aztertzean, irakurri dut ezin dela minbiziarekin preso bakar bat ere egon, ezta beste gaixotasun batekin ere. Nire kasuan, sendagileak senda-agiria ematen ez didan artean, legez, ezin izango naute epaitu. Hori

bai, orain nagoen moduan beste hogeitun urte eman ditzaket. 27 urte eskatzen dizkidate, baina dagoeneko zazpi edo zortzi egin ditut. Pentsatzen nuen epaitu gabe lau urte eduki dezaketela norbait eta beste bi gehiago kasu berezietan. Baina abokatuak honela esan zidan: "Mikel, epaitu gabe nahi duten denbora guztia eduki zaitzakete". Oraingo baldintzetan eduki nazakete, baina epaitu gabe, senda-agiria jasotzen ez dudana bitartean. Pentsatzen hasita, nahiago dut epaiketara joan, eta kito! Lehen pasatu nintzen epaiketa berberetik, eta hamabi orduren buruan kalean nengoan. Norbaitek bere gain hartu du niri leporatutako guzti-guztia; nik ez daukat zerikusirik. Lehen ondo joan zitzaidan auzia, baina hurrengoan, auskalo zer gertatzen den! Luze doa. Dena den, gaixotasuna dela-eta, kalean

egon beharko nuke teoriarik: fiskal batek ni aske lagatzeko eskatuko zuela azaldu zion abokatuari. Garzonek berak maiatzean esan zuten nire kasuan kalean egoteko baldintzak betetzen zirela, eta fiskaltza bera bat zeterren. Baina hori guztia gelditu egin zuten, be-

harrada ni aske laga ezkerantzeko egotzeran dauden beste preso batzuk ere aske laga beharko lituzketelako.

Exeraten arabera, hamalau preso zaudete osasun egoera larrian eta ez zaituztete aske laga nahi. Zer irakurketa egiten duzu?

Preso bakoitzak badaki zer dagoen jokoan eta zer zigor etorri daitekeen. Baina edozein gaixori aplikatzen zaiona aplikatu beharko litzaiguke. Katarroa duen edozeini, esaterako, baja ematen dio medikuak; katarroa pasatutakoan, senda-agiria jaso eta lanera. Jo dezagun katarroa gaixotasun larri bihurtzen dela: erabateko baja ematen dute, bizitza lasaia egiteko. Kito! Ez dute hori eman nahi, ez dute horrela ikusten.

Zelan baloratzen dituzu elkartasun adierazpenak?

Ezin hobeto. Osasun arloko profesionalak gu askatzeko eskatzea oso interesgarria da. Azken batean, hemen erizain askok behintzat senideren bat izan dute preso, eta hori igarri egiten da tratuan.

DATUAK

- 54 urte. Gaur egun, arindutako espetxea Deban betetzen ari da, senideen etxean.
- Uruguain bizi izan da 1989. urtetik. Han hiru urte eman zituen preso.
- 1994an Espainiara estraditatu zuten. Auzitegi Nazionalak epaitu egin zuten, 1988ko ekainean Patxi Zabaleta elgoibartarraren hilketan zerikusia zuelakoan, eta absolbitu egin zuten.
- Uruguaira itzuli zen, eta azken urteotan bere egoera legala zen.
- 2007ko martxoan Pariseko aireportuan atxilotu zuten eta Espainiara estraditatu. Madrilgo Soto del Real espetxera eraman zuten.
- Espetxean psoriasis topatu zioten, baina barrabilean minbizia ez zioten detektatu. Gregorio Marañon ospitalean minbiziagatik ebakuntza egin zioten maiatzaren 14an, eta hurrengo egunean kartzelako erietxera eraman zuten.
- 2008an mobilizazioak hasi ziren Elgoibarren, eta Euskal Herrian Mikelen egoera salatu eta aske lagatzeko eskatuz.
- 2008ko udan Donostiako ospitalea ekarri zuten, eta espetxealdi arindua ezarri zioten. Orduetik, etxean betetzen dihardu bere zigorra, Ertzaintzaren zaintzapean.
- 2008ko abenduan Mikelen Lagunak taldea sortu zuten Elgoibarren, askatasuna eskatzeko.
- 2008 abenduan Gasteizko parlamentuak preso gaixoak aske lagatzeko eskaera egin zuten, Ibañez eta Mikel Gil presoen egoera adibidetzat jarrita.
- 2009ko urtarilean osasun arloko 200 profesionalak preso gaixoak aske lagatzeko eskatu zuten.
- 2009ko urte hasieran hezur-muin transplantea egin diote, ama-zelulekin.



Bi eta hiru urteko 131 umeren aurrematrikula egin dute

Elgoibarko ikastetxeek aurrematrikula kanpaina egin zuten otsailan. Ikastolak eta Herri Eskolak emandako datuen arabera, bi eta hiru urteko 131 ume aurrematrikulatu dituzte guztira irailean hasiko den ikasturterako. Urte bikoien kasuan 104 eskolaratuko dira. Hiru urterekin, berriz, 27 ume gehiago matrikulatuko dituzte irailean.

Ikastolan, bi urteko 63 umeren izenak eman dituzte, irailean hasteko. Ikastetxe horretan, gainera, hiru urteko 9 ume gehiago aurrematrikulatu dituzte.

Herri Eskolan, berriz, 41 aurrematrikulatu dituzte bi urteko ikasgeletan jarduteko. Hiru urtekoen kopurua hamazortzikoa da.



Saibi mendian izan dira Herri Eskolako ikasleak



Saibi mendira irteera egin zuten Herri Eskolako ikasle eta gurasoek, guraso elkarteak antolatuta. Mendi horrek 946 metroko altuera dauka, eta Urkiolatik gertu dago. Herri eskolako ikasleek Anboto, Gorbea, Ganekogorta, Urkiola, Oiz eta Gasteiz ikusteko aukera izan zuten.

“Eguraldiak lagunduta, hainbat ikasle eta guraso animatu zen, eta goiza ederki pasatu genuen”, adierazi dute. Leku honetan, gerra zibilean, borroka odoltsuak gertatu ziren, eta horaindik begi bistan daude lubakien aztarnak eta bonbek eragindako zuloak.

Gailurreko harrizko gurutze handiaren ondoan atera zuten ondoko argazkia guraso eta ikasleek.

Kirmen Uribe idazleak Ikastola bisitatu du

Kirmen uribe idazle ondarrutarra Elgoibar Ikastolan izan zen otsailaren 20an. Ikastetxeak *Idazleak eskolan* ekimena dela-eta, gonbidatu zuen poeta. *Bitartean heldu eskutik* poema liburuari buruz hitz egin zuen ikasleekin. Horrez gain, *Bilbao New York Bilbao* azken lanaren gainean egin zuen berba.

Bitartean heldu eskutik lanak Espainiako Kritika Saria jaso zuen, eta gaztelarara itzuli bezain laster agortu zen liburudendetan. Ingelesko itzulpenak ere arrakasta lortu zuen: Estatu Batuetan ingelesera itzultitako poesia libururik onenaren sarian finalista izan zen, 2007an. Uribek nazioarteko hainbat jardunalditan parte hartu izan du.





- IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIADORAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

Jose Angel Zabala

MAHASTI



Urdaitegi
eta
ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Aralarren esker ona

Idatzi honen bitartez, eskerrak eman nahi dizkizuegu hauteskunde hauetan Ezker Abertzale Politikoa aukeratu duzuen guztioi.

Ezkerreko Alternatiba Abertzalearen oinarriak jartzen ari garenon partetik eskerrik beroenak.

Aralar ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Ibai
Portu

K a i x o
Oihana!!
Aurrekoan,
Motxaila Egunean,
Aitzbeltzeko kobazuloan

izan nintzen. Beti bezala, lekuaren

misterio eta handitasunaz erabat txundituta bueltatu nintzen etxera. Aitzbeltzeko kobazuloa basoan galdua, ixiltasunean, erabateko bakardadean kokatua dago. Akelarre izugarri bat imajinatzen dut han, orain dela mila urtekoa, bere sarrera erraldoi hori ikusten dudan bakoitzean. Eguzkiaren argiak kobazuloaren lehen 30 metroak argitzen ditu. Barrurago, iluntasuna, ixiltasun bortitza, eta, norbanakoa-ren arabera, atzera egin eta beriz argitasunera bueltatzeko gogoia.

“Horren sarrera handia izanda, leku guztietatik ikusi beharko litzateke”, pentsatzen nuen txikitari, nola edo hala kobazuloa topatzen saiatu izan nintzen aldi bakoitzean. Izan ere, zuhaitzek estaliko ez balute, dudarik gabe leku askotatik ikusiko litzateke haren ahoa.

“Oihana, sekretuak gorde ala askatzearen aldekoa zara?”

Aitzbeltz ezagutu nuenetik, behin eta berriz galdera hau egin izan diot neure buruari: honelako leku bikain bat jendeak ezagutu eta mires dezan bultzatu beharko genuke, ala bere bakardadean pake-pakean, ezezagun, jarrai dezan utzi? Nola bermatu horrelako leku bikain baten kontserbazioa? Argi dago bakoitzak alde batetik zein bestetik kolpe dezakeela galdera honen erantzuna. Adibideak, kolore guztietarikoak daude, emaitza ezberdinekin gainera.

Bizitzan, sekreturik handienak gorde eta altxorrik baliotsuenak bihurtu daitezke. Beste batzuetan aldiz, askatu beharra izaten dugu, norbaiti kontatu, gu geu libre sentitzeko. Zu, Oihana, sekretuak gorde ala askatzearen aldekoa zara?



Oihana
Tarragual



Sekretu guztiak dira altxor preziatu, eta altxorrak babestu eta gorde egin behar dira.

Gogoratzen al duzu, Ibai, gure institutu garaian elgoibartarrek esaten zigutena?: “Ni ez naiz sekula Mendaron izan”. Guk ezin genuen hori ulertu, bost kilometrora bizi eta gure herria ez ezagutzea. Adarra ere jotzen ziguten, “Zer, Mendaron behiak kalean ibiltzen al dira?”. Ezjakintasuna itsua dela, zer egingo diogu ba. Edo nerabearoa, zoroa. Eskerrak Inaxio maisuak beti “jende sanoa eta naturala” ginela esaten zigula.

“Mendaroko altxorrik baliotsuenak ondo gordeta daude”

Besteek, ez zekiten asko zer galtzen zuten. Mendaroko sekretuak, zuk diozun bezala, altxorrik baliotsuenak, ondo ondo gordeta daude. Egon behar duten tokian, ixil-ixilean eta bisitatu nahi dituztenen zain. Besteei, hor konpon.

Zorionez, bizitzak buelta asko ematen ditu. Elgoibartarrek Kilimoiko ura edaten dute. Eta ia-ia konturatu gabe, euren etxetan, egunero, gure altxorrik handienetariko bat ari dira dastatzen. Baina nik gaur ura baino nahiago dut Mendaroko txokolate beroa edan. Giro hotza dago kalean, lehiotik begiratu eta Arnoko Tigreak keinu egin dit begiaz. Ez gara gaur Aitzbeltzera jango, pena, Txirristaka etorri omen da Motxaila Eguneran.

Sekretu gehiegi kontaktzen ari ote naiz? Agian, bai.



Elgoibarko Udala



Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, gogoeta egiteko kanpaina jarri du martxan Emakundek, “Emakumeak greban” lemapean.

Zer gertatuko litzateke andrazkoek lanuztea egingo balute?



Manuel Vazquez
54 urte, muntatzailea

Anabasa izango litzateke. Emakumeek gaur egungo gizartean duten papera oso garrantzitsua da; gizonezkoena bezalaxe. Etxeko esparrua oraindik emakumeena da, baina gure kasuan erdi bana egiten ditugu etxeko lanak. Biok lanean ari gara, eta etxekoa ere banatu egiten dugu.



Ainara Urkidi
30 urte, medikua

Gizonek greba egingo balute gertatuko litzatekeen gauza bera. Gaur egun leku guztietan gaude, gizonak bezalaxe. Etxe batzuetan emakumeak pisu handia dauka oraindik, baina hori aldatzen ari da. Kanpoko lana banatzen den bezala, etxekoa ere konpartitu behar da.



Josu Konde
52 urte, mekanizatzailea

Geuk egin beharko genuke emakumeen lana! Ikusi egin beharko litzateke nola moldatzen garen. Nik laguntzen dut etxeko lanak egiten. Hala ere, etxea oraindik emakumeena da, baina gazteen artean hasi da egoera aldatzen, eta horrela izan behar da, gainera.



M^a Carmen Sudupe
71 urte, etxekoandrea

Gure etxean dena falta izango litzateke! Senarrak, jubilatuz zenetik, laguntzen dit apur bat, baina etxekoandrea neu naiz. Berak kanpoan egiten zuen lana, eta nik etxean. Nire ustez, etxekoandreek soldata minimoa kobratu egin beharko lukete behintzat.

I. URTEURRENA

ISABEL ARRIETA ORBEGOZO



*Aritza-n jaioa,
Izarraitzen magalean.
Ia mende bat egin duzu
lagun ta famili giroan.
Orain utzi gaituzu
saminez ezustean.
Betirako izango zara
gure bihotzean.*

2008ko otsailaren 20ean hil zen, 91 urte zituela. I. urteurrenako meza zapatuan, martxoaren 7an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokan. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.





Santa Klarako parkean katez lotu dituzte bi jarleku:

“Santa Klarako aparkeko jarlekuak katez lotu dituzte, eta ondorioz, ezin dira mugitu. Lehen, euria egiten zuenean, arkupeetara eramaten genituen aulkiak, baina orain ezin dugu horrelakorik egin. Ez genion inori kalterik egiten, eta ez dut ulertzen zergatik lotu dituzten. Eskertuko genuke jarlekuak askatzea, eta lehen zeuden bezala lagatzea. Eguraldi txarra den egunetan ere, gustatzen zaigu auzoko bizilagunoi kalera irten eta bankuan eserita egotea, eta orain ez daukagu horretarako aukerarik. Mila esker”.



Plaza Txikiko TAO-OTA sistema ez da egokia herrigunean bizi direnentzat: “Elgoibarko erdigunean bizi naiz, eta Plaza Txiki inguruan TAO-OTA sistema jarri zutenetik, aparkatzeko arazoak ditut. Gauez egiten dut lana, eta 6:00etan etxeratzen naizenean, aparkatzeko leku libre asko egoten dira, baina ezin dut bertan aparkatu eta ohera joan, ordu eta erdian autoa mugitu egin behar dudalako. Erdigunean bizi garenek Plaza Txikian aparkatzeko aukeraren bat izan beharko genuke, merkatariek daukaten bezalaxe. Amorratu egiten naiz merkatarien autoak txartel berezi batekin TAO-OTako gune urdinean aparkatuta ikustean. Gainotzeko bizilagunek daukagun tratu bera eduki beharko luketela iruditzen zait”.



Zuen kezak, galderak edo txalokak bidaltzeko: barren@elgoibarkozarra.com
943-74.41.12



eskerrik asko

www.aralar.net


ezkerreko **alternatiba** abertzalea


aralar

Olasoko kanposantu aurrean errotonda egiteko obrak hasi dituzte aste honetan

Bederatzi hilabete inguru iraungo dute lanek, aurrikusitakoaren arabera,

Aste honetan hasi dituzte Sigma auzoko errotonda egiteko obrak. Hasieran 2008an egin behar zen obra hori, baina atzerapena izan du. Sukia enpresa izango da lan horien arduraduna, eta arduradunek esandakoaren arabera, bederatzi hilabete inguru iraungo dute lanek. Errotonda egiteko obraren aurrekontua 2.029.881,60 eurokoa da.

Helburua

Herriko hegoaldeko sarbidea asko aldatuko du jarduera horrek, eta bi helburu nagusi izango ditu biriblguneak: batetik, Olasoko eta Xixilionekeo industrialdeetara sarrera erraztea, eta bestetik, Sigma auzorako sarrera-irteerak berrantolatzea, gaur egun oso arrisku-tsua baita N-634 errepidetik auzo horretara dagoen sarbidea.



Beste hainbat obra

Une honetan herriko hainbat ingurune obretan daude, eta hilabete bartzuren buruan, Elgoibarrek itxura berria edukiko du. Ubitarte-Buruko etxeen ingurua urbanizatzen ari dira, eta estazio

kalean bi metro zabalerako espaloia egingo dute. Santa Ana eta San Inazio kalea oinezkoentzako egokitzeko lanak ere aurrera doaz, eta Madala ingurunean egiten ari diren obrak ere, martxan daude.

Lurrazpiko zabor edukiontzia aldatzen ari dira



Merkatari eta ostalariek zaborra botatzerakoan dituzten arazoak konpontzeko, lurrazpiko edukiontzien buzoiak aldatzen ari da Udala. Edukiontzi berriek atea handiagoa izango dute atzeko aldean, hondakin poltsa handiak bota ahal izateko. Merkatari eta ostalariei informazio eskutitza bidaliko diete, eta bakoitzak bere giltza edukiko du. Gainera, giltza sarrailatik ateratzeko, ezinbestekoa izango da atea ixtea.

25 urteko gaztea hil da motor istripuz

Borja Uzuriaga 25 urteko gazteak, Aiastia-San Migeleko bizilagunak, Markina-Xemein aldera zihoala, motor istripua izan zuen domekan, martxoaren 1ean. Herraingo Sailak jakinarazi du 10:50 aldera, GI-2636 errepidetik Markinara bidean zihoan Honda CB 600 motorreko gidari elgoibartarra erori egin zela. Istripua gertatu zen tokira bertaratu zen anbulantzia batek Mendaroko ospitalera eraman zuen biktimak. Eguerdiko 13:15 aldera, gidaria hil egin zen erietxean bertan.



Izena **Egoitz Mora**



Egoitz Mora elgoibartarra Espainia-ko judo liga irabazteko bidean da, Usurbilgo judo taldearekin. Txapelketaren erdia jokatu ondoren, hamar puntu dauzka taldeak, eta bigarren postuan dago, Brunete taldearekin berdintuta. Valencia taldea dago lehenengo postuan, bi puntuko aldearekin. Espainia-ko Liga judoko maila gorena da, eta bertan hamahiru taldek hartzen dute parte. Bi jardunaldi falta dira txapelketa amaitzeko.

Berbia **Bizikidetza**

Herritarren arteko bizikidetza arazoak konpontzeko proiektua jarriko du martxan Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz. Egoeraren diagnosis egingo dute lehenik, eta aurrikusitakoaren arabera, hiru edo lau hilabeteren buruan amaituko dute. Proiektu honek 18.000 euroko aurrekontua dauka, eta %60 Foru Aldundiak finantzatuko du. Aurrez Bizkai eta Araban egin dituzte honelako ikerketak, eta, orain, Gipuzkoako hamar herritan burutuko dituzte. Debararenean Elgoibar aukeratu dute.

Irudia **Zarta arkulari taldea**

ETB1eko *Sut&blai* programako lantaldea Zarta arkulari taldearen jarduna grabatzera etorri zen astelehenean, martxoaren 2an. Irudiak grabatu eta taldeari buruzko informazioa jaso zuten. Oraindik ez dute konfirmatu noiz azalduko diren elgoibartarrak telebistan, seguruenik martxoan zehar izango da. Gazteentzako saioa da *Sut&blai* eta barixakuetan emititzen dute.



Merkadilloak zeresana eman zuten plenoan

Eguenetako merkadilloak zeresan handia eman zuten joan zen asteleko plenoan. PPko zinegotziak merkadilloa lekuz aldatzeko mozioa aurkeztu zuen urgentziatzeko metodologia erabiliz. Hori dela-eta, PSE-EE eta Aralarrek batetik, eta EAJ-PNVk bestetik, bi mozio aurkeztu zituzten. Guztira, beraz, hiru mozio izan ziren merkadilloaren inguruan, eta EAJ-PNVrena bakarrik onartu zuen osoko bilkurak. EAJ-PNVren mozioak merkataritzaren ikerketa egin behar dela esaten du, eta kalitatezko merkadilloaren aldeko apustua egiten du. Gainontzeko bi mozioetan, eguenetako azokaren leku aldaketa aldarrikatzen da, batez ere.

Hileko azken zapatuko ferriako zozketa

Azken zapatuko feria indartzeko asmoz, erosle guztien artean martxoko ekitaldi kulturaletan parte hartzeko bi sarrera zozketatu zituzten zapatuan. Hilabete honetan Juan Carlos Ansola izan da irabazlea.



Ingeniaritza Eskolako ate irekiak zapatuan

Ingeniaritza Eskolak ate irekien eguna antolatu du biharko. 11:00etatik aurrera, IMHko Ingeniaritza Eskolari buruzko informazioa jasotzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek eta ikasketexea bisitatzeko aukera ere egongo da.

Emakume eta gizonen arteko desoreka gutxitzeko, berdintasunerako plana

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, hainbat ekintza egingo dira egunotan Elgoibarren. Horrez gain, gizon eta emakumeen berdintasunerako plana prestatu du Udalak. Diagnostia egin dute, eta aurrerantzean egin beharreko ekintza plana prestatu dute. Etxetan banatuko dute informazio guztia, baina nahi duenak www.elgoibar.org atarian kontsultatu dezake berdintasun plana. Nerea Altxu, berdintasunerako teknikariarekin egon da BARREN.

Edurne Burgaña

Berdintasun politikak sustatzen hasi zen Debegesa 2006. urtean Debabarrenean, eta Udalei eskaini zien proiektua. Berdintasun plana egiteko lehen puntua diagnostikoa egitea zen, eta urte hartan bertan egin zuten Elgoibarkoa: alde batetik Udal barrukoa, eta bestetik Elgoibarko herriarena. Emakume eta gizonen egoera alor ezberdinetan zelakoa den aztertu zuten, eta aurrera begira egin beharreko lanak prestatu zituzten. 2008ko abenduan onartu zuen Elgoibarko Udalak berdintasun plana, eta 2008tik 2011ra arte egin beharreko egitasmoa prestatu dute. Joan zen astean, bestalde, Berdintasunerako Batzorde Informatiboa osatzea onartu zuen plenoak, aho batez, eta Bittori Zabala zinegotzia izango da lehendakaria.

Sei lan arlo

Euskal Autonomia Erkidegoan berdintasun plan bat dago, eta bertan zehazten da zer arlotan planteatu behar diren helburu eta ekintzak. Sei alor horiek ondorengoak dira: Udala; kultura eta kirola;

hezkuntza; lana; gizarteratzea eta osasuna; eta hirigintza eta ingurumena. “Sei alor horietan helburuak zehaztu eta ekintzak egin behar ditugu. Diagnostikoari esker alor horien inguruko informazioa atera genuen jakiteko nondik abiatzen ginen, eta zein helburu planteatu behar ziren”, azaldu du Nerea Altxuk.

Diskriminazio kuota txikitu nahian

Sei eskuartze arlo horiez gain, lanerako lau ardatz estrategiko ere badaude. Genero ikuspuntua txertatzea ekintza guztietan, etxeko eta laneko bateratze neurriak hartzea, emakumearen jabeakuntza, eta emakumearen kontrako indarkeria. Lau puntu horiek jorratu behar dira plan guztian zehar.

Eremu askotan emakumea diskriminatuta dago, diagnostikoaren arabera: ez daud aukera berdinetan. “Berdina hitza erabiltzerakoan zehaztu beharra dago. Ematen da esan nahi du berdina izan behar dugula, eta hori ez da kontua. Arazoa ez da desberdinak garela, baizik eta desoreka dagoela emakume eta gizonen artean. Beraz, helburu eta ekintza horiekin diskriminazio kuota txikitu eta hori horrela ez izateko baldintzak sortu nahi dira; aukera berdintasunak sortu”, zehaztu du teknikariak.

Arreta zerbitzua

Nerea Altxuk emakumeenganako informazioa emateko zerbitzua eskaintzen du astelehen eta eguenetan, 8:00etatik 15:00etara.



Erretratueta ikusten dira iaz egindako hainbat ekintza. Asteburu honetarako ere emakumeen aldeko ekitaldiak antolatu dituzte.

ESKUARTZEAK, BANAN-BANAN:

Berdintasun planaren diagnosian makalguneak detektatu dira, eta aurrera begira egin beharreko lanetako batzuk dira ondorengoak:

UDALA:

Helburuetako bat genero ikuspegia sartzea da Udaleko ekintza eta politika guztietan. Genero ikuspuntua kontuan edukitzeak gizonezkoen eta emakumezkoen egoera zein den jakitea esan nahi du. Hizkuntza ez sexista erabiltzea, irudi ez sexistak erabiltzea dokumentazioan eta langileak trebatzea berdintasun gaietan.

KULTURA ETA KIROLA:

Emakumearen kirola suspertzea, tradizioz emakumezkoen kirola izan direnetara gizonezkoak erakartzea, eta alderantziz, kirol federatuen emakumeek egiten dituzten jardueri ikuspen gehiago ematea dira helburuetako batzuk. Kultur eskaintzan emakumeen orduetgia kontuan hartzen halaaginduko dira.

HEZKUNTZA:

Ikastetxeekin harremanetan jarri eta programak egiteko aukera emango diete: Laguntza eman, langileei trebakuntza eskaini eta lan heziketan emakumezkoak bideratu egingo dira. "Teknologia-tako ikastaroetan eta ingeniari-tzetan gehienak gizonezkoak izaten direla ikusten da; desorekatuta daude. Debegesak Emakumeak industriara erakartzeko kanpaina du mar-

txan. Gaur egun lanbide batzuk feminizatu daude: erizaintza, irakasletza, administrazioa eta hori aldatu nahi dugu", esan du Nerea Altxuk.

LANA:

Baldintzak sortu behar dira ondorengo gauzatzeko: emakumeek lanean aritzeko aukerak izatea eta lanaren kalitatea hobetzea, tradiziozko industri sektoreko lan teknikoetan emakumeen partaidetza handitzea, etxeko lanak egiteko ematen den denboran emakume eta gizonezkoen artean dagoen desberdintasunak gutxitzea eta bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea.

OSASUNA ETA GIZARTERATZEKO ARLOA:

Elgoibarrek genero indarkeriari aurre egiteko protokolo bat dauka, eta Ertzaintza eta Udaltzaingoa hartzen dute parte. Gizarte zerbitzuak, hezkuntza eta osasun arloko profesionalak ere koordinazioan parte hartzea da helburua. Azken batean eraso jasan duen emakumeak koordinazio mailan hobekuntza igarri beharko du, onuradun izateko. Datorren hilerako diseinatuko dute protokoloa.

HIRIGINTZA ETA INGURUMENA:

Genero ikuspuntutik diagnostiko urbanistikoa egiteko diru-laguntza eskatu diote Emakunderi. "Espazioa zelaz dagoen antolatuta aztertuko dute, gizon eta emakumeen beharrei nola erantzuten dijon jakiteko. Hau da, lana eta etxeko lanen bateratzean duen eragina. Adibidez, supermerkatu bat zabaltzeko orduan herriko zein gunetan jartzen duzun eragina dauka: herritik kanpo jartzen bada oztopoa izango da, eta herri barruan jartzen bada mesedegarria. Plaza bat jartzerakoan, jakinda emakumeak, nagusiak eta haurrak izango direla erabiltzaile gehienak, aulkiak ez izatea harrizkoak, baizik eta egurrezkoak. Edo kaleetan historikoki ekarpen garrantzitsuak egin dituzten emakumeen izenak edo monumentuak jartzea. Azken batean emakumeen lanari ikusgarritasuna emateko modu bat da", azaldu du teknikariak.

Diru-laguntzarekin, bestalde, herriko puntu ilunen mapa ere egingo dute: bertako emakumeen artean ikusi emakumeentzat segurtasun aldetik txarrak diren puntuak zeintzuk diren, erantzun bat eman ahal izateko. Mapa bat egiten da eta herrian banatzen da segurtasun aldetik emakumeak hobeto informatuta egoteko.

Gure berbak

Aditz trinkuak: ERUAN aditza (2)

Gaurkuan ERUAN aditzaren iraganeko formak ikusiko ditugu. Gaiñuntzeko aditz iragankorrekin egin dogun bezela, objektua singularra deben kasuak lehenbizi eta plurala debenak ondoren. Aditz honen kasuan, ikusten hasiko gara defektibuak esaten jakuen aditzen ezaugarri bat: defektibuak esaten jakue aditz-forma guztiak ez dituen aditzeri; forma batzuk, denporaren poderioz, galduz jua dira, eta erabiltzari laga jakue; aditz-forma sintetiko hórren orde, aditz perfrastikuak erabiltzen dira, aditz nagusia eta laguntzaillia debenak, hain zuzen (guk eruan genduzen, zuk eruan zenduzen...).

- Hona, ba, iraganeko aditz-forma "osatugabiak":

♦ Neutra: *nik naruan, harék zaruan, hárek zaruen*

♦ Alokutiboa (giz.): *nik najaruan, hik haruan, harék jaruan, hárek jaruen.*

♦ Alokutiboa (emak.): *nik najarunan, hik harunan, harék jaronan, hárek jaronen.*

- Hona pluralgilea deben kasuak, are murriztaguak:

♦ Neutra: *nik naruzen, harék zaruzen, hárek zaruzen.*

♦ Alokutiboa (giz.): *harék jaruzen, hárek jaruzen.*

♦ Alokutiboa (emak.): *harék jaronzen, hárek jaronzen.*

ERUAN aditza iraganian da, ikusi dogunez, defektibua. Badira beste aditz batzuk erabat defektibuak diranak (aditz trinkuaren erabilleran, betiere): hórretako bat ESAN aditza da; forma bakan batzuk besterik ez ditu gaur egun erabilgarri: *Halaxe dío nere lagunak, eta halaxe jion iez ere: lehengo lepotik burua harek ere!*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1985

Aste honetako erretratu AUBIXAN aterata dago, eta 1985 ingurukoa da. Ikastolako umeak urtero joaten ziren AUBIXARA, eta lagun giroan oso ondo pasatzen zuten udaldia. Jolasak, lehiaketak, eta sorgin gaua izaten ziren, batez ere, ekintzarik gustukoena. Gogora ditzagun argazkian azaltzen direnak:

Goian zutik, ezkerretik eskumara: Iosu Zubiaurre, Iñaki Maria, Amaia Murua, Julen Irizar, Amaia Arantzamendi, Elvira Vila, Itziar Elustondo, Mireia Alvarez, Begoña Azkunaga, Iker Leonardo, Maria Bergara, Asier Bilbao (†), Eneko Iriondo, Gorka Urbeta.

Erdian, belauniko: Nerea Oñederra, Ainara Mugertza, Idoia Zubiaurre, Arkaitz Mujika.

Behean, eserita: Iñigo Aranbarri, Ana Bereziartua, Ainhoa Andonegi, Ainara Garcia, Larraitz Zialzeta, Amaia Ovejero, Naiara Barrenetxea eta Ainara Iriondo.



ESKERTZA

MARI CRUZ BELAUSTEGI ZUAZO

2009ko otsailaren 27an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Otsailean...

JAIOTAKOAK



Sofia Casares Ordoñez
Urtarrilak 14
Jose Manuel eta Iciar



Gari Narbaiza Garitagotia
Otsailak 5
Oier eta Larraitz



Leire Bilbao Olaskoaga
Otsailak 9
Beñat eta Ainhoa



Olatz Bastida Saiz
Otsailak 8
Xabier eta Ana-Isabel



Beñat Fementeria Totorika
Otsailak 8
Maite



Gorka Castañeda Dominguez
Otsailak 21
Aitor eta Aitziber



Luken Arriola Alberdi
Otsailak 26
Ibon eta Naiara

Maite Sarr
Otsailak 5
Cheikh eta Adama

Malen Garate Bastida
Otsailak 5
Mikel eta Nora

Miren Conde Bermejo
Otsailak 24
Igor eta Beatriz

Eneritz Nuñez Monedero
Otsailak 25
Jose Maria eta Begoña

Leire Burunza Gil
Otsailak 27
Iñaki eta Maria Iciar

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 744 112** telefonora edo bidalite-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.

HILDAKOAK

Antonia Gabilondo Unzueta • **90 urte** • Otsailak 3
Pakita Zabaleta • **92 urte** • Otsailak 4
Nicolas Bonal Sanchez • **69 urte** • Otsailak 12
Jose Galarraga Uria • **71 urte** • Otsailak 15
Jose Inazio Iriondo Arrillaga • **72 urte** • Otsailak 16
Juan M^a Andonegi Agirregomezkorta • **64 urte** • Otsailak 27
Mari Kruz Belaustegi Zuazo • **44 urte** • Otsailak 27

ETXE BERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA

JUAN MARI ANDONEGI AGIRREGOMEZKORTA

2009ko otsailaren 27an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



‘Lentas pero seguras’ antzezlanak ikusi ahal izango da datorren bairuxakuan, martxoaren 13an

Hiru emakumeren arazo berri emango du *Papel Higienico* konpainiak

Papel Higienico teatro konpainiak *Lentas pero seguras* antzezlanak ekarriko du datorren barixakuan, hilaren 13an, Elgoibarrera. Herriko Antzokian izango da antzezlanak, 22:15ean hasita, eta sarrerak kultur etxean eros daitezke. Hiru emakume dira antzezlaneko protagonistak, eta emakumeek egunerokotasunean dituzten arazoak taularazten dituzte.

Elkarren artean kontu kontari

Cristina Cillero, Arantxa Fernandez Ramos eta Marigel Nieceza aktoreek gaur egungo gizartearen estresaz, eta norbere burua maitatzen ikasteaz, eta kosta ahala kosta bizitzaz gozatzeko beharraz jardungo dute antzezlanean. Umore klabean beti, baina batzuetan umore goxoa eta gazian besteetan.



Protagonistak mundu ezberdinetakoak izan arren, asteroko footing saioan ezagutu dute elkar. Pixkanaka elkar ezagutzen joango dira, eta azken urteotan bizi izan-

dako gertaerak kontatuko dizkiote elkarri: ikasketak, familia, maitasuna, lan mundua, haurdunaldiak, seme-alabak... bizitza, azken batean.

Juan Mari Andonegi omenduko du musika bandak

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan, hilaren 8an, 12:30ean, herriko Antzokian, eta joan den astean hil zen Juan Mari Andonegi omenduko du. Dokumentazioa lortzen laguntza handia eman zuen Andonegik bandan, eta urteotan egindako lana eskertu nahi diote musikariek. Ondorengo abestiak joko dituzte: J. Garcíaren *Lope*, Beethovenen *Egmond*, J. de Haanen *Oregon*, G. Jimenezen *Cinematográfico Nacional*, eta KVren *Las playas de Río*.



Udane Juaristiren erakusketa zabalduko dute hilaren 13an

Kultur Etxeko erakusketa gelan Udane Juaristi Ibañez azkoitiarraren margoak ikusi ahal izango dira martxoaren 13tik aurrera. Datorren barixakuan inauguratuko duten erakusketa hilaren 29ra arte egongo da zabalik. Astelehenetik zapatara 19:00etatik 21:00etara bisitatu ahal izango da, eta domeketan 12:00etatik 14:00etara. “Kalean ibiltzea dut gustuko, hitz egiten dute txoko horietan... argazki eta pinturaren laguntzaz, txoko horietan geratzen naiz...”, dio margolariak.



II. URTEURRENA

IGNACIO OÑEDERRA URÍA

2007ko martxoaren 1ean hil zen, 78 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, domekan, martxoak 8, goizeko 11:30ean Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Miskiren aldeko jaialdi benefikoak 1.700 euro batu ditu

Emanaldira 230 pertsona joan dira



Peruko ume behartsuei laguntzeko 1.700 euro gehiagorekin hartu zuen Gemma Agirregomezkortak Cuzcورا abioia domekan, martxoaren 1ean. Jaialdi benefikoa zuzenean jarraitu zuten 230 lagunek ordaindutako sarrereren diruarekin eta herritarrek emandako aparteko diruarekin osatu da Miskirentzako azken laguntza. Ikuskizunak bi ordu inguru iraun zuen. Ion Gurrutxagaren laguntza izan zuen Expression Sonora talde beteranoak eta Haritz euskal dantzari taldeak emanaldi bikaina eskaini zuen.

Jaialdi benefikoan eta Miskik aurrez batu duen diru-laguntzaren onurak Peruko 600 haurrek igarriko dituzte. 30.000 euro

inguru lortzen ditu urtero Miski Gobernuz Kanpoko Erakundeak, baina aurten aurrera eraman nahi dituzten proiektuentzako 32.000 eurokoa zen aurrekontua. Krisiaren eta eguraldi txarraren eraginez, zifra horietara ailegatzea kosta egin zaien arren, nola edo hala lortu dute. Azken batean, horregatik antolatu behar izan dute jaialdi benefikoa.

Bi hilabeteko bidaia

Perun dago Gemma dagoeneko, laguntza bertatik bertara gestionatzeko asmoarekin, Cuzcورا egiten duen hamargarren bidaiari. Bi hilabete inguruko egonaldia egingo du elgoibartarrak.

Gaur arratsaldean, 19:00etan, egingo dute 'Korrika 16'-ren aurkezpena

2009ko *Korrika*, hamaseigarrena, martxoaren 26an hasiko da Tuteran, eta apirilaren 5ean amaituko da Gasteizen. Elgoibartik apirilaren 2an (egunean) pasatuko da. Urola aldetik iritsiko da, Azkarateko gaina pasa eta gero, eta ziurren da nahiko berandu ailegatzea Elgoibarrera. Mendaro aldera joango da gero. Baina aldeaz aurretik, aurkezpena egingo dute gaur, 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



Taupada antzerki taldeak ikastaroa emango du

Antzerkia gustuko duenak ikastaro batean parte hartu ahal izango du. Izan ere, Elgoibarko Taupada antzerki taldeak ikastaroa emango du, eta izena emateko azken eguna martxoaren 17a da.

Honakoa landuko dute, besteak beste. gorputza eta ahotsa, espresioa, inprobisazioa, jolasak, komunikazioa eta irudimena, kontzentrazioa eta erlaxazioa. Gainera, antzezteko hainbat modu landuko dituzte: naturalismoa, maskarak, txo-txongiloak, koreografia eta clowna. Eguenetan izango dira ikastaroak, 20:00etatik 22:00etara Taupadaren lokalean. Izena eman nahi duenak, telefonoz egin dezakete: 943 743 655 edo 653 013 813 zenbakietara deituta.

UEUren ikastaretarako diru-laguntzak

UEUK Eibarren egiten dituen udaberriko ikastaroetarako diru-laguntzak emango ditu Udalak. Zortzi ikastaro emango ditu:

- Web mugikorra.
- Ubuntu erabiltzen hasi nahi dit.
- Harreman harmonikoa izateko komunikazio-trebetasunak.
- Gorputz emozio adimena
- Israel eta Palestina: izenburuaren errealitatea baino sakonagoa.
- Literatura.
- E uskara erabiltzeko motibazioa sustatzeko trebakuntza saioa.
- Morfologiako eta sintaxiko arketak konputagailuaren bidez.

Elgoibarko Udalak ematen dituen diru-laguntzak lortu ahal izateko ezinbestekoa da herrian erroldatuta egotea. Matrikula osoa ordaintzeko laguntza emango die ikasle eta langabetuei, eta lanean daudenei matrikula erdia ordaintzen die. Laguntza eskaerak Udaleko Euskar Sailean aurkeztu behar dira.

Arkaitz Irureta elgoibartarrak zilarrezko bi domina lortu ditu iraupen eskian

Joan den zapatuan eta domekan jokatu dira lasterketak Somporteko eski pistan

Azken urteetan mendi eskian gehiago ikusi arren, aurten ere iraupen eskiko lasterketa batean parte hartu du Arkaitz Iruretak. Somporteko iraupen eski pistan Gipuzkoako Txapelketak jokatu ziren asteburuan: zapatuan *klasiko* modalitatean 10 kilometro izan ziren, eta domekan, berriz, estilo librean 30 kilometro.

Bi modalitate eta distantzia oso ezberdin: batzuei distantzia motzak hobeto joaten zaizkie luzeak baino, eta batzuk estilo bateko lasterketetan hobeto dabilza bestean baino. Halere, asteburuan, bietan zilarrezko dominak lortu zituen Arkaitzek.

“Bi dominekin pozik”

Zapatuko proban bost kilometroko ibilbide bati bi itzuli egin behar zizkioten erlojuz kontra Hamabost segundoko tartean irtenda. 35 minutu behar izan zituen elgoibartarrak proba amaitzeko.

Domekan, berriz, lasterkari guztiak batera irten ziren. 30 kilometro egin behar



izan zituzten estilo librean, eta Iruretak ordu eta erdi behar izan zituen ibilbidea burutzeko.

“Denok ezagunak gara, eta oso giro ona egoten da gure artean. Horregatik pena ematen dit lagatzeak, eta ahal dudan guztietan joaten naiz Eibarko Klub Depor-

tibokoekin txapelketa horietara. Urte batzutan hobeto zaude, beste batzutan gaizkiago, baina urtero egin nahi izaten dut lasterketaren bat, eta aspaldiko lagunak agurtu. Aurten, aspaldiko partez, bi dominekin oso pozik itzuli naiz”, azaldu du Iruretak.

Zumaiako herri lasterketan Elgoibarko hamahiru lasterkari aritu dira nagusien mailan

Joan den zapatuan, otsailaren 28an, Zumaiako herri lasterketa jokatu zuten. Herrian barrena 10 kilometro eta 200 metroko ibilbide gogorra egin zuten 574 lasterkarik, tartean, Elgoibarko hamahiru nagusien mailan. Juniorretan Mintxeta atletismo taldekoek ere egin zuten korrika, eta nesketan emaitza oso onak lortu zituzten, gainera.



Sailkapena

Honako hauek izan dira elgoibartarrek lortutako emaitzak.

NESKAK

11. Ainhoa Lendinez	44:01
16. Nerea Lendinez	45:25
17. Pilar Arriola	45:47
56. Pilar Lama	54:32

MUTILAK

16. Jose Antonio Ruiz	34:36
56. Martin Dominguez	36:52
78. Mikel Anakabe	37:48
86. David Conde	38:09
92. Asier Arrieta	38:16
102. Iñigo Salegi	38:23
126. Alberto Garate	39:31
218. Luis Anakabe	42:05
240. Javi Fernandez	42:32

Elgoibarko Eskubaloi Eskola aurkeztuko du Sanlok domekan

Hamar eta hamabi urte bitarteko umeei zuzenduta dago



Elgoibarko Sanlo eskubaloi taldeak, Eskubaloi Eskola jarri du martxan aurtengo denboraldian, eta domekan, hilaren 8an, aurkeztuko dute, 11:00etan, Olaizaga kiroldegian. Eskola hori, hamar eta hamabi urte bitarteko gaztetxoentzat izango da: bai elgoibartarrentzat, bai inguruko herrieta-koentzat ere.

Eskolaren helburua txikitatik kirolean hastea da, batez ere eskubaloian, eta kontzeptu teknikoak eta taktikoak erakutsiko dizkiete. Praktikarekin batera, hainbat balore era erakutsiko dizkie-

te kirolari gazteei: besteak beste, kirol arauak errespetatzea, taldean jokatzeko jakitea, eta besteenganako errespetua.

Aldizkaria estreinakoz

Bestalde, klubaren aldizkaria ere kaleratuko dute estreinakoz. Kluba aurkezteaz gain, nutrizioaren inguruko erreportajeak, kirolean jardun aurretik egin beharreko berroketak ere landuko ditu, besteak beste.

Aurkezpenaren aurretik, 9:30ean hasita Elgoibarko alebinek Zarauzkoen aurka lau partida jokatuko dituzte. Horren ostean, 11:00etan hasiko da aurkezpena.

Giro onean egin dute Tenis jaia 40-15 elkartekoek



Elgoibarko Tenis eskolak antolatuta, tenis jaia egin zuten zapatuan Mintxetako eta IMHko pistetan. Partehartzaileek ondo baino hobeto pasa zuten egunerako prestatutako jolas eta partidekin. Gainera, gazteenek opariak jaso zituzten.

EMAITZAK

FUTBOLA

Kultu Durango 2 – Elgoibar 1 (Haundi)
Elgoibar 1 – Ilintxa 1 (1. erreg.)
Elgoibar 0 – Santo Tomas Lizeoa 1 (Jub.)
Elgoibar 0 – Zumaia 0 (Kad.)
Ordizia 2 – Elgoibar 1 (Inf.)
Bergara 1 – Elgoibar 1 (Txik.)
Segura Goierri 1 – Elgoibar 4 (Neskak)

ESKU PILOTA

Lagunak (2) 22 – Beloki 20 (1. mail.nag.)
Lagunak 4 – Mundarro 22 (2. mail.jub.)
Lagunak (1) 3 – Lagunak (2) 22 (Nag.)
Lagunak (2) 8 – Elgoibar 22 (Nag.)
Lagunak 22 – Aretxabaleta 15 (Jub.)
Lagunak 16 – Bergara 22 (Kad.)

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 2 – Ceramicas Nogales 1 (Nazional B)

ESKUBALOIA

Kukullaga 22 – Tecnifuelle Elg. 28 (Sen. nesk.)
IMH Elg. 22 – Basauri 15 (Kad. nesk.)
Alkorta Elgo. 38 – Liñasti 22 (Sen. mut.)
Urola 38 – Pneumax Elgo. 27 (Kad. mut.)
Ikus Elgo. 12 – Aiala Zatz 14 (Kad. nesk.)
Astigarraga Elgo. 17 – Irurena Ordi. 14 (Inf. nesk.)
Bankoa Elgo. 29 – Pulpo A 26 (Inf. mut.)
Txariduna Elgo. 19 – Arrate B 22 (Inf. mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 7

16:00 Xagua – Zarautz (Sen. mut.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 7

10:30 Elgoibar – Urola (Txik.)

12:15 Elgoibar – Dunboa-Eguzki (Inf.)

16:30 Elgoibar – Zarautz (Haundi)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 7

11:30 Lili Elg. – Aloña (Inf. nesk.)

13:00 Aterpe Elg. – Bera Bera (Inf. nesk.)

18:00 Tecnifuelle Elg. – IES Construcción (Sen.nesk.)

Domeka, 8

13:00 Pneumax Elg. – Jauja (Kad.mut.)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barxakua, 6

22:00 Lagunak – Usurbil (1. mail.jub.)

Ostean Lagunak (1) – Antiguako (1) (1. mail.nag.)

Martitzena, 10

19:30 Lagunak – Arrasate (Jub.)

IDARRAGA SARIAK

1. postuan: Larrea (51 puntu)

2. postuan: Hodei (46 puntu)

3. postuan: Loren (41 puntu)

LANA

ESKAERA

- Emakumea, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Arratsaldez edo gauetz. ☎ **646 821 678**
- Emakumea, garbiketa lanak eta nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **649 212 944**
- Emakumea lanerako prest. Ordu-tegi aukera desberdinekin. ☎ **617 056 828**
- Emakumea, haurrak eskolara eraman eta handik etxera ekartzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **652 715 908 / 943 74 22 01**
- Emakumea, garbiketa lanak edo haurrak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **696 246 962**
- Emakumea, goizeko 9etatik 17etara garbiketa lanak egiteko prest, baita gauetan pertsona helduak zaintzeko prest ere. ☎ **943 53 19 03 / 665 414 801**
- Erizain laguntzailea, pertsonak zaintzeko prest egongo litzateke. Esperientziarekin. ☎ **667 461 940**
- Emakumea, nagusiak zaintzeko, haurrak zaintzeko edo portalak garbitzeko prest. ☎ **699 609 190**
- Emakumea lanerako prest garbiketa lanetarako, sukaldari laguntzaile edo haurrak eta nagusiak zaintzen. Interna egoteko aukera edo orduka. ☎ **646 235 195 / 636 362 251**
- Emakumea garbiketa lanetarako prest edo haurrak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **680 808 125**
- Neska gaztea lanerako eskaintzen da, arratsaldez edozein lan egiteko (etxeko lanak, garbiketak,...). ☎ **671 277 662**
- Neska gaztea, umeak edo agureak zaintzeko prest (esperientzia). ☎ **686 420 642**

- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **639 020 180**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **616 233 996**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak eta harrerako lanak egiteko prest. ☎ **662 261 575**
- Emakumea edozein lan egiteko prest, garbiketa lanak, umezaintzaile... ☎ **616 690 415 (Marta)**
- Mutil gaztea sukaldeko laguntzaile edo zerbitzari lan egiteko prest. ☎ **616 690 415**
- Emakumea lanerako prest. Arratsaldeetan etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 743 251**

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUA

- Alokagai dagoen etxe baten bila nabil. ☎ **695 708 820**

SALGAI

- Etxebizitza salgai Arregitorren, egoera onean. Sukaldea, 3 logela, bi komun, egongela eta ganbara. 225.000 € (aukera ona). ☎ **696 266 982**
- Etxea salgai, 60m² ditu eta guztiz berriztatutako dago. 38 milioi/ 228.000 €. ☎ **635 700 778**

LOKALAK

- Garajea alokagai Mugerza pasealekuan (pista beltza), itxia edo irekia ☎ **943 741 436**
- Garajea salgai edo Alokagai. (Urasandi behean, Madala parean), 23 m² ditu. Bi autorentzako tokia, bigarren solairuan tente egoteko altuera dauka. ☎ **637 946 954**

MOTORRA

- Hyundai Furgoneta salgai. 7 eserleku. Erremolkerako bola dauka. 130.000km. Beira tindatuak. 8.000eur o. ☎ **660 027 976**
- Peugeot 405 GRI salgai, 5 ate, oso ondo zaituta, kilometro gutxi ditu, gasolina, prezio oso onean. IAT-ITV irailan pasata. ☎ **686 879 996**

BESTELAKOAK

- Pedro Muguruza 27an umeen jostailuzko otor bat aurkitu da. ☎ **943 741 140 (Trini)**
- Mahaigaineko ordenagailua HPE6300 Pavilion Intel 1024 250GB Media Center, Sony tft 17"-ko monitorrea eta HP PSC 1510 multifuntzio inpresora salgai. ☎ **686 879 996**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARRENEN** eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro

Lanbroa



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a



Idama



Otsaileko irabazlea:
NATI GARCIA

Martxoko saria:
**KOLOREA +
MOZTEA +
ORRAZTEA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaleitik)
Tel.: 943 74 40 26



• Zorionak, **bihurri**, astelehenean zure urtebetetzea izango delako, familia osoaren eta bereziki Alainen partez. 5 muxu potolo



• Zorionak **izar** zure zazpigarren urtebetetzean. Muxu pilla bat, eta belarriko tirakada potolo bat. Zure familiako partez.



• Zorionak, **Iker**, martxoaren 4an bi urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiako partez, bereziki Nerearen partez.



• Zorionak, **Aner**, eta ondo pasa igandean zure amaren partez.



• Zorionak, **Bihurritxo**, zure hirugarren urtebetetzean. Zure familia eta bereziki Gaizkaren partez



• Zorionak, **Jone**, lau urtebetetzean. Muxu handi bat guraso eta ahizparen partez.




• Zorionak, **Iker** 10 urte bete dituzulako, muxu handi bat denon partetik eta zoriotsu izan!



• Zorionak, **Ane Artolal** Hilaren 12an 13 urte bete zenituelako. Familia guztiaren partez muxu asko.



• Zorionak, **Ander**, atzo hiru urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia osoaren partez.



• Zorionak, **Iker!** Atzo 11 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiaren partez eta bereziki Andoniren partez.



• Zorionak, **izeba Lurdes**, bihar urteak betezen dituzulako. Oso ondo pasa familiaren partez eta bereziki lbairn partez.



• Zorionak, **Aitor**, astelehenean 11 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Camp Rockera**, 8 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat familiaren partez.



• Zorionak, **Mikel**, zure eguna izan delako. Muxu handi bat etxeko partez.



• Zorionak, **Mireia**, atzo 18 urte bete zenituelako. Kontuz, ez erre hainbeste kandlekin!



• Zorionak, **Nereal** Zure 11. urtebetetzean! Familiako eta izeba Arantza eta Nataliaren partez.



• Zorionak, **Mikel**. Iritsi da zure zazpigarrena eta jarritu orain arte bezain alaitsu. Senideon aldetik.




• Zorionak, **Julen**, joan den zapatuan 5 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiaren partez eta bereziki Andoniren partez.


ZORIONAK BOSKOTE!



Zorionak otsaileko boskoteari, jada urtetxo bat bete duzuelako, txokolatzeko muxu bat ikastolako laguntxoaren partez.



• Zorionak hirukote!!! Otsailean bi urtetxo egin dituzue eta. Ikastolako laguntxo guztien partez.



• Zorionak **Nora** eta **June**. Muxu haundi bat familiaren partez

OKINDEGIA

8 domeka **BOLINTXO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 6 Etxeberria (*Errosario*)
- 7 Ibañez
*(*Goizez Yudego)*
- 8 Ibañez
- 9 Garitaonandia
- 10 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 11 Fernandez
- 12 Yudego
- 13 Zabaleta

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBAREN.net



6 barixakua

Kultura

19:00 Korrikaren aurkezpena
AEK euskaltegiak Korrikaren aurkezpena egingo du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Tailerra

19:00 Emakumeen jabekuntzarako jendarte trebetasuna
Idoia Lekue izango da irakaslea. Kultur Etxeko sotoan.

Zine foruma

22:00 'Melisa P'
Haizeak antolatuta, *Melisa P* filma emango dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hizlaria, Eskarne Larrinaga.

7 zapatua

Tailerra

10:00 Komunikazio tailerra
Haizeak Emakunderen laguntzaz antolatutako tailerra. Hilaren 7an izango da lehenengo saioa. Kultur Etxean.

Ate irekiak

11:00 Ingeniaritza Eskola
IMHko Ingeniaritza Eskolako ate irekien ekitaldia. Ikastetxea bisitatzeko aukera izango da.

8 domeka

Musika

12:30 Bandaren kontzertua
Udal Musika Bandak eskainiko duen kontzertuan Juan Mari Andonegi omenduko dute. Herriko Antzokian.

Emakumeen Eguna

19:00 Kontzentrazioa
Parekidetasunaren bidean, feminismoa lemapean, kontzentrazioa egingo dute. Plaza Handian.

19:45 Galtzak Ikuskizuna eta luntxa

Nonaren eskutik, Kultur Etxeko sotoan

12 eguena

Hitzaldia

19:00 Ostegun bidaiariak
Gazte Informazio Bulegoak antolatuta, Costa Rica, Panama eta Mexikori buruzko informazioa eskainiko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

LUDOTEKAKO EKINTZAK



**MARTXOAREN 13AN
TXOTXONGILOEN
IKUSKIZUNA KIXKA AN-
TZERKI TALDEAREN
ESKUTIK. 18:00ETATIK
AURRERA LUDOTEKAN**



GAZTELEKUKO EKINTZAK



**MARTXOAREN
7AN,
ZATOZ
KARAOKE
TXAPELKETARA!
LARALARA...**

«Mi nombre es Harvey Milk»

- 6, barixakua: 22:15
- 7, zapatua: 19:00/22:15
- 8, domeka: 19:00
- 9, astelehena: 21:30

«El reino de los chiflados»

7, domeka: 16:30

«Antes que el diablo sepa que has muerto»

Ongarri zine-kluba
12, eguena: 21:30



13 barixakua

Tailerra

18:00 Autodefentsa

Emakumeentzako autodefentsa tailerra eskainiko dute kiroldegian. Izena Arreta Bulegan edo kiroldegian eman daiteke.

Antzerkia

22:15 'Lentas pero seguras'

Papel higienico taldeak eskainiko du ikuskizuna. Herriko Antzokian. Sarrerak aurretik erosi daitezke Kultur Etxean.



Gure gomendioa

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoak 8, domeka, 19:00etan

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Udalak, Haizeak eta herriko emakumeen asanbladak. Besteak beste, emakume eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzeko kontzentrazioa egingo dute hilaren 8an, Plaza Handian. Ondoren monologo saioa izango da Kultur Etxeko sotoan.



Zerikasi

IKASTAROAK

Literatur ipuina

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-03-17 / Bukaera data: 2009-05-19
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu

Euskal emakumea erdi aroan

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-04-02 / Bukaera data: 2009-06-18
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu

Elikagaiak manipulatzeko ikastaroa

Norentzat: Langabetu, janariekin lan egiten dutenentzat...
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-03-24 / Bukaera data: 2009-03-31
Non: Donostian
Izena emateko: 943 429 003

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA



UNIBERTSITATEA
BIZITZEKO
PREST!

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

MARTXOAK 12 - 17:30 osteguna

ARRASATE-MONDRAGÓN AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

MARTXOAK 28 - 11:00 larunbata

ORDIZIA AULA MAGNA Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

APIRILAK 4 - 10:00-13:00 larunbata

ORATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

APIRILAK 2 - 18:00 osteguna

IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // loiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MARTXOAK 12 - 18:00 osteguna

ESKORIATZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

Argazkiak

Dotore jartzen

Elgoibarko gaztetxoek euren burua dotore jartzen ikasteko orrazkera eta makillaje ikastaroa antolatu zuen Gaztelekuak otsailean. ilea zelan moldatu eta aurpegia ederrago ikusteko zelan makillatu behar den erakutsi zien herriko gaztetxoei Bergararik etorritako adituak.





OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)

San Bartolome, 25

Tel: 943 744 031

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan:

20:00-21:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel.: 943 531 953

669 565 745

Goiz eta arratsaldez .

Jausoro, 6 behea

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaila linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.) San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) -Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com

www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre enparantza, 5 behea

Tel: 943 530 053

lekueder@infomed.es

Betia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea

Tel: 943 531 869

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30

15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurrira egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.


San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 741 645

Ordutegia:

9:30-13:30

15:30-19:30



LENTAS PERO SEGURAS

Higiénico papel teatroa

Martxoaren 13an, ostirala
22:15ean,
Herriko Antzokian



KIKA SUPERSORGINA

Ambigú producciones



MARTXOAREN 15ean, igandea - 16:30ean, HERRIKO ANTZOKIAN



Elgoberko Udala
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritza



SAREA